

Urte bat pasatu zen hori gertatu zenetik eta berriro bidaia bat prestatzeko garaia heldu zen, baina bidaia hori sorpresa bat zen Maren eta Nahiarentzat. Egun hartan oso goiz jaiki eta kotxean sartu behar zen familia.

- Baina maletak ama? -Galdetu zuen Marenek.
- Bidaia honetan ez ditugu behar. Erantzun zion aitak (Josetxok).
- Non erosiko ditugu oinetakoak eta zapatilak? - Galdetu zuen Nahiak.

Orduan gurasoak barrezka hasi ziren eta ez zuten ezer erantzun.

Loiuko aireportura hurbildu ziren, kotxea aparkatu eta barrura sartu ziren. Nahiak ez zuen ezer ulertzen Jesusarri batzuetan Jesusarri eta laurak isil-isilik egon ziren ordu erdi batean.

Baina halako batean, harrituta gelditu ziren biak, motxilarekin zetorren neskato bat ikusi zutenean. Diara zen, musuka eta besarkadaka hasi ziren hirurak eta baita Miren eta Josetxo ere. Hori bai zela oporrak baino opari ederragoa! Diarak uda osoa pasatu zuen beraiekin, eta hurrengo uda, eta horrela, zortzi urte daramatza Euskal Herrira etortzen, Marenen familiak gonbidatuta. Urtero uda amaitzen denean eta agurtzen direnean gauza bera esaten dute lagun maitagarri biak:

"Zu hor eta ni hemen baina elkartuko gara hurrengo udan"

.....
"Zu hor eta ni hemen"

Aimi Busket

11 urte - Lezama

2013 - C kategoria

1. saria

.....

